



CARITASEN ERAKUNDE EKIMENA – 2021 EGUBERRIA

Liturgia gida. Abenduaren 4. Igandea (2021.12.19)

Sarrera

Ongi etorri Abenduko azken igandeko ospakizunera! Gainean ditugun Gabongau eta Eguberri.rako gure prestaketa sakontzeko garaia da.

Beleneko Eguberriaren benetako eguneratzea izan dadin, Ebangelioek ematen digute giltza. Jesus berriro jaioko da gure artean. Ongi etorria emateko prest gaude, bera eta bere mezua, hala biz! gure artean haz daitezten.

Kristau bizitzan, Caritas betiereko erreferente da. Eguberrian, Caritasek Jesus Beleneko estalpean gogoarazten digu. Aldi berean, Caritasek, orain orduan bezala pobrezian eta eskasian bizi diren hainbeste “estalpetan” bizi diren pertsona eta familietan, Jesus aurkitu nahi du

Damu egintza

1. Jauna, Zutaz beteriko Eguberria bizi nahi dugulako, hau da, itxaropenez, karitatez eta anaitasunez betea.
ERRUKI JAUNA.
2. Kristo, gure ingurua Zutaz aberastu eta bete nahi dugulako eta Zu bezala, Eguberrietan eta beti eskuzabal eta errukitsu izan nahi dugulako.
KRISTO ERRUKI
3. Jauna, Beleneko estalpeko zure jaiotzak, gure begiak guregandik hurbil ditugun beste “estalpe” batzuetara ireki ditzan,
ERRUKI JAUNA

Irakurgaiak

1. irakurgai Miq. 5,1-4a: Miqueas profetak gogoarazten digu, askotan gauza txikiena eta baliogabekoena, handienaren eta onenaren iturri izaten dela. Hola gertatzen da Eguberrian: Haur jaio berri batek, fedea, itxaropena eta karitatea eskaintzen digu. Jakingo al dugu! bere mezuak dioena asmatzen eta aktiboki jasotzen.

2. irakurgai Heb 10,5-45: Jaunaren borondatea ez da biktima eta sakrifizioa. Jaunak nahi duena eta guregandik espero duena da, Jesusi jarraitu eta imitatzea Jainkoaren eta lagun hurkoarenganako maitasunean.

Ebangelioa Lc 1,39-45: Mariak bizi izan zuen kristautasunaren historiako lehen Abendu eta Eguberria. Isabeli ikustaldia egin, arduratu eta laguntza eman zion, Maria bezala haurra jaiotzeko zain baizegoen. Gure Eguberria ere izan dadila elkarrenganako maitasun eta karitatearen aldeko garaia.



Fededunen otoitza

Jesusek dioen bezala, denon Aita den Jainkoarengana zuzenduko gara; **Anaitasuneko** sentipen eta jokaeraz, gure anai-arreba behartsuenen aldeko eskaera hauek entzun ditzala eskatuko diogu.

1. Abenduko azken aldi hau, eta bereziki Eguberria: Auzoan, Parrokiako komunitatean eta gure familia guztietan, bake, itxaropen eta hurbiltasun garaia izan dadin.
ESKA DIEZAIOGUN JAUNARI.
2. Eguberria aberastu eta gure kristau izatea indartzen dituzten solidaritza, anaitasuna eta karitatea Eguberrian areagotua izan dadin.
ESKA DIEZAIOGUN JAUNARI.
3. Biziki eskatzen dizugu, lanik, etxerik edo duintasunez bizitzeko haina ez dutenen alde; baita aterbe, babes, segurtasun eta bakezko etorkizun baten bila dabilzanen alde ere.
ESKA DIEZAIOGUN JAUNARI.
4. Gure inguru hurbilean, **ziur badirela** gure konpromisoak eta laguntzak bizitza duinagoa izaten lagunduko lioketen pertsonak .
ESKA DIEZAIOGUN JAUNARI.
5. Elizbarruti eta parrokiakako Caritasen alde, lagun hurkoaren eta behartsuenen aldeko bere programa eta ekintzak, denon laguntza oparoaz ebangelioaren emankortasunean garatu ahal ditzan.
ESKA DIEZAIOGUN JAUNARI.

Jaso itzazu gure eskariak eta bedeinka, Jesus iragartzera datorren Jaunaren Erreinuarekin eta Eguberriaren mezuarekin, bat datorren bizitza eta mundu baten aldeko gure ahaleginak. J.K.G.J.

Azken agurra

Gaur Maria bezala sentitu nahi dugu, graziaz eta pozez betea Jesusen jaiotzaren aurrean. Eguberri honetan, gure bozkarioa handitua izan dadila karitate anaikor baten aldeko ekintza oparoaz.

Caritaseko boluntarioek eta zuen laguntza eta bultzada jasotzen duten guztiek Eguberri zoriontsua! opa dizuete zuen familiei eta parrokiako komunitateari.

Mila esker zuen etengabeko laguntza, otoitz eta bultzadagatik!